



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

AZKOITIKO KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO PLANA

EKINTZA-PLANAREN LABURPENA eta JARRAIPEN PLANA



Proiektuaren izena:

Azkoitiko Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko
Plana.

Bezeroa:

Ekintza planaren laburpena eta jarraipen plana

Aholkularitza-taldea:

Azkoitiko Udala
IZADI 21 (Inguru 21, S.L.)

Data:

2025-03-27

AURKIBIDEA

1.- SARRERA ETA AURREKARIAK.....	3
2.- KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO AZKOITIKO PLANA.....	3
2.1.- PROZESUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA.....	3
2.2.- EKINTZA-PLANAREN LABURPENA.....	4
2.2.1.- IKUSPEGIA.....	4
2.2.2.- HELMUGAK.....	5
2.2.3.- HELBURU/ILDO ESTRATEGIKOAK	6
2.2.4.- EKINTZA-PLANA	10
3.- EKINTZA-PLANAREN INPAKTU GLOBALAREN KALKULUA.....	17
3.1.- AZTERTUTAKO HELBURU KUANTITATIBOAK ETA ERREFERENTZIA URTEA	17
3.2.- HELBURU KUANTITATIBO BAKOITZAREN AZTERKETA.....	18
3.2.1.- UDALAREN ENERGIA KONTSUMOA	18
3.2.2.- UDALAREN ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN SORKUNTZA.....	18
3.2.3.- UDALERRIKO BEG EMISIOAK	20
3.- JARRAIPEN-PLANAREN EZAUGARRIAK	22
4.- EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA	24

1.- SARRERA ETA AURREKARIAK

Azkoitiko Udalak energia teknikaria kontratatu zuen **2022an** EEEK eta Ihobek Lanbide eta Novia Salcedorekin batera garatutako "lehen esperientzia administrazio publikoan" programaren bidez. Horrela, urte hartan bertan **hasi ahal izan zuen udalak Klima eta Energiari buruzko diagnostikoa eta plana lantzen**. Energia teknikariaren lanaldia bukatu zenean, Izadi 21 aholkularitza teknikoa kontratatu zuen udalak lanari amaiera emateko.

Tokiko klima eta energia planak EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen 14. artikuluan eta EAEko Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legearen 18. Artikuluan ezarritako eskakizunei erantzun nahi die. 2025-2030 aldirako Azkoitiko Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Planak (AKEIEP) klima-aldeketa **arintzeari** eta hartara **egokitzeari** modu integralean heldu nahi izan dio, horretarako helburu estrategiko, programa eta ekintza zehatzak planteatuz.

2.- KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO AZKOITIKO PLANA

2.1.- PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Aurrerago aipatu bezala, Azkoitiko Klima eta Energia Iraunkorraren aldeko plana idazteko prozesua 2022an abiatu zuen garaiko energia teknikariak eta orduz geroztik ondorengo faseak garatu dira:

1.- Diagnostikoaren idazketa eta ekintza-planaren lehen bertsioa: prozesuaren lehen fase hau energia teknikariak garatu zuen, ekintza-planaren ikuspegia eta helburu estrategikoak ere zehaztuz.

2.- Dokumentuen azterketa: aholkularitza teknikoaren lehen lana ordura arte sortutako dokumentuen berrikustea izan zen. Diagnostikoa eta hasierako ekintza-plana berrikusi eta ekarpenak egin ziren, dokumentu horien bertsio ezberdinak osatuz.

3.- Ekintza-planeko jardueren inguruan udal teknikariek egindako ekarpenak aztertzea eta planaren bertsio berrian barneratzea: 2024ko ekainaren 5ean egindako saioan, udal teknikariei landutako ekintza-plana aurkeztu zitzaion eta prestatutako dinamikaren bidez euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

4.- Parte-hartze prozesua: Azkoitiko Klima eta Energia Iraunkorraren Aldeko Planak parte-hartze zabala izan du, herritarren ikuspuntua planean barneratzen dela bermatu nahi izan delako:

- Udalerriko DBHko ikasleen ekarpenak: 2024ko ekainaren 17an Azkoitiko bigarren hezkuntzako ikasleekin landu zen ekintza-plana. Jada ezarrita zeuden helburuak aurkeztu zitzaizkien eta taldetan banatuta, helburu horietako bakoitzerako udalak aurrera eramateko egoki ikusten zituzten ekintzak proposatu zituzten.
- Azkoitiko Ingurumen Mahaiaren ekarpenak: 2024ko ekainaren 19an egindako saioan, herritarrek 4 taldetan banatu ziren eta ekintza-planari ekarpenak egiteaz gain, lehentasunezko ekintzak identifikatu zituzten.
- Online galdetegia: herritar guztiei bideratutako online galdetegiaren erantzunak ere aztertu eta jasotako ekarpen horiek ere ekintza-planaren diseinurako baliatu ziren.

5.- Ekintza-planaren bertsio berriaren idazketa: parte-hartze prozesua amaitutzat ematerakoan, herritarren ekarpenak aztertu eta ekintza-planaren bertsio berria osatu zuen aholkularitza taldeak.

6.- Udal teknikariekin bilera: 2024ko azaroaren 4an, Azkoitiko udaletxean, teknikariekin egindako bileran parte-hartzearen nondik norakoak eta emaitzak aurkeztu ziren eta ekintza-planaren bertsio berria ezagutzera eman zitzaien. Ekintza bakoitzari arduraduna esleitzeko ere baliatu zen bilera hura.

7.- Ekintzen karakterizazioa udal teknikariekin: bi goizetan zehar bulego teknikoko teknikariekin batera ekintzen karakterizazioa egin zen. Ekintzen deskribapena, lehentasuna, epea, aurrekontua, etab. zehaztu ziren bilera horietan.

8.- Gainontzeko teknikarien ekarpenak jasotzea: bulego teknikoaren ardura ez ziren ekintzen kasuan, zegokion udal-sailari bideratu zitzaizkion ekintzak (alkatetza, kultura, udaltzaingoa, kontu-hartzailetza, idazkaritza, etab.) ingurumen-teknikariaren bidez eta eurei zegokien ekintzen karakterizazioa egin zuten.

9.- Ekintzen karakterizazioa eta ekintza-planaren azken bertsioaren lanketa: Udaletik ekarpen guztiak jasota, ekintzen azken karakterizazioa eta planaren azken bertsioaren lanketa egin dira.

2.2.- EKINTZA-PLANAREN LABURPENA

2.2.1.- IKUSPEGIA

Klima eta Energia Plan honen norabidea definitzen duen ortzi muga nagusia, 2050. urteko **klima-neutraltasuna** da. Jomuga horretara bidean, begirada 2030ean kokatuko da, izan ere, egin beharrekoak askotarikoak dira bai **energia efizientziari** dagozkionak eta baita **energia berriztagarrien** erabilerari dagozkionak ere.

Bestalde, ikuspegi bateratua duen plana izango da honakoa, neutraltasun klimatikoaz gain, etorriko diren aldaketen aurrean lurraldea eta **gizartea prestatzeko** helburua baitu. Azkenik, **gizarte erresiliente bat lortuko bada, trantsizio hau bidezkoa izatea ezinbestekoa izango da.**

Bidezko trantsizio honetan, Udalak ardura berezia du, bai udalerrian dituen eskumenengatik eta baita herritarrengandik gertuen dagoen instituzio publikoa izateagatik ere. Era berean, herritarren **parte-hartzea** bermatzea beharrezkoa izango da, haiek ere **subjektu proaktiboak** izan daitezen eta trantsizioa bere egin dezaten.

2.2.2.- HELMUGAK


Plan honen helmugak, **kuantitatiboak zein kualitatiboak** dira. Helmuga hauek gainera, aipatutako plan eta lege desberdinen norabide berean kokatzen dira, ikuspegi zein logika orokorrari eta betebeharrak zehatzei dagokionez:

HELMUGAK	PLANA
2030 urterako Udalaren energia kontsumoa % 35 murriztea erreferentzia urtearekiko.	EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea
2050 urterako Udalaren energia kontsumoa % 60 murriztea erreferentzia urtearekiko.	EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea
2030 urtean Udalak duen energia elektriko eta termikoaren kontsumoaren % 32 bertako energia berriztagarriez hornitzea.	EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea eta Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren 1/2024 Legea
2030 urterako udalerriko BEG emisioak % 40 murriztea, 2005. urtearekiko.	- 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia.
2050 urterako udalerriko BEG emisioak % 80 murriztea, 2005. urtearekiko.	- Gipuzkoa 2050: Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia.
2030 urterako BEG isurpenak % 45 murriztea, 2005 erreferentzia-urtearekin alderatuta.	Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren 1/2024 Legea
Udalerriko energia kontsumoa % 17 murriztea 2016-2030 epealdian	Euskadiko Energia Estrategia 2030
2030 urterako kontsumo energetikoa gutxienez % 12 murriztea 2021 oinarri-urtearekiko.	Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren 1/2024 Legea
2050 urterako kontsumo energetikoa gutxienez % 37 murriztea 2021 oinarri-urtearekiko.	

Lurraldearen eta gizartearen erresilientzia bermatzea	- 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko Estrategia - Gipuzkoa 2050: Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia - Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren 1/2024 Legea
Energia eta Klima, arintzea eta egokitzea, ikuspegi bateratuan lantzea.	Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren 1/2024 Legea.

2.2.3.- HELBURU/ILDO ESTRATEGIKOAK

Plana Helburu Estrategikoetan antolatzen da. Era berean, **Helburu Estrategiko** hauetako bakoitza Jarduera-programetan banatzen da. **Programak**, helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten helburu zehatzagoak dira. Azkenik, programak **ekintzek** osatzen dituzte:



1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

Lan ildo honen helburu nagusia, udalerriko zein udaleko energia eskaria murriztea izango da. Alde batetik, 4/2019 legeak eta 1/2024 legeak ezartzen dituen helburuekin bat egiteko, eta bestetik argindar, gas natural eta petrolio kontsumoak murrizteko bere osotasunean. Energia kontsumoa aurrezteko bidean, eraginkortasun energetikoa sustatzea beharrezkoa da, bai etxebizitzetan birgaitzea sustatuz ala instalazio zaharrak berrituz. Lehentasuna, birgaitzeak beharko luke, hartara, instalazio zaharren aldaketak ere eragin handiagoa izan dezan.

Lan lerro honetan beraz, etxebizitzak eta udal eraikin publikoak izango dira nagusi. Jarduera konkretuenak udal eraikin publikoenak izango dira eta honako helburu hauek bete beharko dituzte: eraikinen % 40k B etiketa izatea, gasolio-galdarak aldatzea (Gaztanenea) eta energiaren eskari osoa % 35 murriztea 2018. urtea hartuz erreferentzia moduan.

2. ILDOA: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA SUSTATZEA

Bigarren ildo honi dagokionez ere, bi izango dira sektore nagusiak: udal eraikinak eta etxebizitzak. Udal eraikinei dagokionez, 2023ko urrian aurkeztutako azterketa teknikoa izango da abiapuntu nagusia¹. Honekin, energia fotovoltaiakoaren potentzialtasun osoaren argazkia egin da eta jarduera zehatzak proposatzen hasteko aukera irekiko da.

Etxebizitzaren kasuan, hauek laguntzeko proposamenak egingo dira, orain arte daudenak kontuan izanda beti ere. Helburu nagusia, etxebizitzetan energia berriztagarriak sustatzea izango da. Horretarako, informazio kanalak irekiko dira herritarrekin harremana izateko. Bestalde, etxebizitzaren estalkien azterketa egitea sustatuko da, bai modu pribatuan ala publikoan. Azterketa honek, herritarrei proiektu konkretuak proposatzeko aukera irekiko du, autokontsumo konpartitua lehenetsiz.

Industrian hasia da lan hau bera egiten Iraurgi Berritzenekin, beraz, proiektu honen jarraipena sustatuko da.

3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA

Mugikortasun planaren diseinua izango da jarduerarik garrantzitsuenetakoa, nahiz eta plan honetatik kanpo dagoen garapen oso bat beharko duen honek. Plan honek, bestek beste, Urbanue zerbitzua, auto elektrikoaren ezarpena eta auto pribatuari alternatibak bilatzea izan behar du helburu. Lehenik eta behin, herritarren garraio ohiturak aztertzea beharrezkoa litzateke, mugikortasun planaren hasiera moduan. 2021. urtean bizikletaren erabileraren diagnostikoa egin zen eskualdeko bost udalerrietan, abiapuntu egokia dena mugikortasun beharrak identifikatzen hasteko. Plan honekin batera, udaletxeko langileei dagokien mugikortasun plana egingo da.

Industriaren kasuan ere, mugikortasun planak egitea sustatuko da -legeak hala eskatzen dienei-, Iraurgi Berritzenen bitartez.

Beste alde batetik, auto elektrikoak kargatzeko puntuak jartzeko plana egingo da, epe motzean puntuak instalatuko baitira eta etorkizunean egon daitezkeen beharretara aurreratu ahal izateko.

Azkenik, Udalaren ibilgailu flota ere berritu beharra dago. Auto berriak erosterako orduan izan beharreko baldintzak betetzen diren ziurtatzeko mekanismoak jarriko dira, 4/2019 legeak hala eskatuta. Ildo honetan, abiapuntu interesgarria izango da ere 2021 urtean

¹ “Azkoitiko Udalaren eraikin publikoetako energia berriztagarrien instalazioen bideragarritasunaren azterlana”.

Iraurgi Berritzenen bidez landu zen udal ibilgailuen ordezkapenerako gidalerroen proposamena aintzat hartzea.

4. ILDOA KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUKO DIREN HIRI-PLANGINTZAK ETA -DISEINUAK SUSTATZEA

Lerro honen helburu nagusia Azkoitia klima agertoki berrietara egokitzeko jarduerak diseinatzea izango da. Diagnostikoari jarraituz, tenperaturen igoerak eta uholde arriskuak izango dira lehentasuna. Aurreikuspen horiekin, bi arrisku horiekiko jarduerak proposatuko dira ildo honetan; zaurgarrienak diren sektoreetan lehentasuna jarritz. Jarduera konkretuak proposatzeaz gain, etorkizuneko hiri-planeamenduan kontuan hartzeko irizpideak zehaztuko dira, euri-jasa eta tenperatura altuetarako egokitu daitezen.

5. ILDOA: KLIMA-ALDAKETAK PERTSONEN OSASUNEAN ETA ONGIZATEAN DITUEN EREGINAK MURRIZTEA

4. Ildoarekin batera, klima aldaketak pertsonengan izan ditzakeen eraginak murrizteko helburua izango du ildo honek. Lehentasuna, bero boladen eragina murriztea izango da, zaurgarrienak diren pertsonengan -umeak, haurdun dauden emakumeak eta herritar helduenak- jarritz fokua. Bide honetan, hiri ingurunean egin daitezkeen jardueraz gain (espazioen naturalizazioa, itzalak...), bero boladak daudenean aktibatuko den protokolo bat ezartzea bultzatuko da, egokiak izan daitezkeen eraikin publikoak irekiz adibidez.

6. ILDOA: NATURA-INGURUNEAK BABESTEA

Seigarren ildo honen helburua natur inguruneen kontserbazioa eta zabalpena sustatzea da. Horretarako, dagoeneko babestuta dauden inguruneen kontserbazioa sustatuko da (Natura 2000 adibidez) eta degradatuta dauden inguruneetan esku hartzeak proposatuko dira. Helburu nagusia, ekosistema natural orekatu bat lortzea izango da. Azkenik, hiri-ingurunean dauden elementuetan gauza daitezkeen jarduerak proposatuko dira; zuhaitzak, ibai inguruak, parkeak...

7. ILDOA: UDALERRIAK KLIMAREKIN LOTUTA DITUEN ERRONKEI ERANTZUTEA AHALBIDERATUKO DUEN GOBERNANTZA-EREDUA ANTOLATZEA

Ilido honek bi norabide jorratuko ditu: barnera begirakoa eta kanpora begirakoa. Alde batetik, udaletxearen barne funtzionamenduan klima eta energiarekin lotuta dauden gaiak sistematizatzea izango da helburua, 4/2019 legeak eta 1/2024 legeak eskatzen dituen betebeharren jarraipena adibidez.

Bestalde, kanpora begira ere, udalak baditu egitekoak. Hala ere, energia kontsumo eta balantzeak publiko egingo dira, baita klima eta energian egiten diren jarduerenak ere.

8. ILDOA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA AKTIBATZEA SUSTATZEA


Herritarren parte hartzea prozesuaren oinarrietako bat izan behar da. Herritarrak, plan honen diseinuaren parte izango direla bermatu beharko da lehenik. Ondoren, plan honek dituen jarduera desberdinetan, herritarrek izan beharko duten papera ezaugarritu beharko da. Helburua, ez da soilik izango herritarrak planean integratzea, baizik eta herritarrengan datozen aldaketen aurrean beharrezkoa izango den kultura sustatzea izango da.

2.2.4.- EKINTZA-PLANA

Azkoitiko Klima eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Planak **83 ekintza** jasotzen ditu, aurreko atalean definitutako **8 ildo** edo helburu **estrategikotan banatuta**.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, **ekintza gehienak** (% 58) klima aldaketa **arintzea** dute helburu, beste % 35ek aldaketara **egokitze**ko neurriak jasotzen dituzte eta gainontzeko % 7ak **herritarren parte hartze**ari eta aktibatzeari egiten diote erreferentzia.


EKINTZAK ARLOAREN ARABERA BANATUTA



Grafikoa 1: AKEIEP-eko ekintzak arloaren arabera banatuta: egokitzea, arintzea eta parte-hartzea.

Ildo estrategikoen araberako banaketari erreparatzen badiogu, **lehenengo eta hirugarren ildoetan** barneratzen da ekintza kopuru handiena, 22 ekintza eta 17 ekintza, hurrenez hurren.

EKINTZEN BANAKETA HELBURU ESTRATEGIKOAREN ARABERA



Grafikoa 2: ekintzen banaketa helburu estrategikoen arabera.

1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
ETXEBIZITZAK	1.1.1	Udalerriko etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren azterketa egin.
	1.1.2	Etxebizitzak berritzeko plan estrategikoa gauzatu, lehentasunak definituz eta aktuzioak proposatuz.
	1.1.3	Energia aurrezteko sentsibilizazio kanpainak sustatu.
	1.1.4	Etxebizitza zaurgarrietan, energia-eraginkortasuna hobetzeko bisitak eta energia eskuhartzeak egin.
	1.1.5	Aholkularitza energetikoa emateko asmoz, energia bulegoa martxan jartzea aztertu herritarrek energiaren arloan izan ditzaketen zalantzak argitzeaz gain, energia aurrezpena, energia eraginkortasuna eta autokontsumorako aukerak azalduko dituen.
UDALA	1.2.1	Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko dauden neurri fiskalak eguneratu eta herritarrei komunikatu.
	1.2.2	Hiriko hiri-garapen berrietan energia eraginkortasun handiko irizpideak ezarri.
	1.2.3	Kontsumoen eta berotegi efektuko gasen emisio datuak publiko egingo dituen web atala sortu.
	1.2.4	Etxebizitzaren birgaitzea oztopatzen duten irizpideak berrikusi, alde zaharreko etxebizitza babestuetan batez ere.

	1.2.5	Udal langileek telelanerako aukera izan dezaten sustatu garraioari loturiko kontsumo eta isuriak murrizteko. IDAZKARITZA
ZERBITZUAK	1.3.1	Komertzio eta enpresa txikien energia-eraginkortasuna bultzatu Iraurgi Berritzenekin batera. KULTURA
INDUSTRIA	1.4.1	Industrian eraginkortasun energetikoa bultzatzen duten programak mantendu eta sustatu Iraurgi Berritzenekin elkarlanean.
	1.4.2	Industriaren kontsumo eta emisioen jarraipena egiteko sistema diseinatu Iraurgi Berritzenekin batera.
UDAL ERAIKINAK	1.5.1	Auditoretza energetikoak berrikusi eta beharrezkoak direnak berritu.
	1.5.2	Argiteria publikoaren auditoretza egin.
	1.5.3	Argiteria publikoaren eta eraikinen potentzia kontratatuaren optimizazioa egin.
	1.5.4	Udal eraikinetan energia aurrezteko neurriak hartzea (leihoak, estalkiak)
	1.5.5	Auditoretza energetikoan aurreikusitako hobekuntzak aurrera eramateko neurriak hartu, Elkargunean batez ere.
	1.5.6	Udal eraikin eta zerbitzuen energia kontsumoen jarraipena egin, udal inbentarioa eguneratuta mantentzen dela bermatuz.
	1.5.7	Udalaren ibilgailu flota berritzeko plangintza bat definitu.
	1.5.8	Argiteria sistema LED sistemen bitartez aldatzeko neurriekin aurrera egin.
	1.5.9	Erregai fosilak erabiltzen dituzten eta udalaren jabetzako eraikinetan dauden ekipamenduen ordeztatze jatorri berriztagarriko energiak erabiltzen dituzten beste batzuk ezarri, modu progresiboan.

2. ILDOA: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA SUSTATZEA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
ETXEBIZITZAK	2.1.1	Autokontsumo indibiduala eta eraikin mailan partekatutakoa sustatu.
	2.1.2	Biomasa bidez beroa sortzeko sistemen ezarpena handitu bizitegi-sektorean eraikin berrietan ezarpenerako aukera aztertuz.

INDUSTRIA	2.2.1	Industrian autokontsumoa eta autokontsumo partekatua sustatu.
	2.2.2	Industria sektorean egindako proiektu eta jardueren jarraipena egiteko programa edo egitasmoa diseinatu eta aurrera eraman.
UDAL ERAIKINAK	2.3.1	Eraikin publikoetako estalkien potentzialtasunaren azterketaren ondorengo jarduerak landu lehenik eta behin jarduerak gauzatzeko programazioa definituz.
	2.3.2	Udal eraikinetan egon daitekeen soberako energiarekin zer egin pentsatu.
	2.3.3	Udal eraikinetako berokuntza sistemak berritzeko azterketa egin.
	2.3.4	Elkarguneko energia kontsumoa murrizteko neurriak hartu.
	2.3.5	Elkarguneko proiektu berrian energia berriztagarriak ezartzeko plana egin.

3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
UDALERRIA	3.1.1	Mugikortasun jasangarrirako planaren oinarritzko printzipioak zehaztu.
	3.1.2	Mugikortasun jasangarrirako plana egin.
	3.1.3	Eskualdeko eta udalerriko mugikortasun planaren integrazioa bermatu.
	3.1.4	2021. urtean eskualde mailan egindako bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzeko egin zen diagnostikoa aztertu, eta beharko balitz, zabaldu.
	3.1.5	Bizikletaren erabilera sustatu.
	3.1.6	Bidegorri sarean hobekuntzak egin (asfaltatzea, etab.) eguneroko bidaietarako erabilgarriagoak egiteko.
	3.1.7	Auto konpartitua erabiltzeko proiektua definitu eta abiarazi.
	3.1.8	Auto pribatuaren erabilera murrizteko eta garraio publikoaren erabilera bultzatzeko neurriak hartu.
	3.1.9	Auto elektrikoen erosketa sustatzeko baliabideak bilatu.
	3.1.10	Auto elektrikoak kargatzeko guneak zehaztu eta planifikatu.
	3.1.11	Udaletik "Ehunzango" ekimena berreskuratzeko ahaleginak egin.

	3.1.12	Oinezkoen guneen eta bizikleta-bideen segurtasuna bermatzeko ekintzak aurrera eramán.
MERKATARITZA	3.2.1	<i>Errekauek</i> zerbitzua martxan jarri, elikagaien etxez etxeko banaketa jasangarria bultzatzeko.
	3.2.2	Eskualde mailako merkantzien etxez etxeko zerbitzurako puntu logistiko baten irekiera bultzatu, ondoren, bertatik modu jasangarrian garraiatzeko aukerak baloratz.
INDUSTRIA	3.3.1	Industria gunetara egin beharreko bidaien planak sustatu, Enpresa, Iraurgi Berritzen eta sindikatuekin batera.
UDALA	3.4.1	Udaleko langileen mugikortasun plana egin.
	3.4.2	Urbanue zerbitzuaren berritzean, erregai alternatiboak erabiltzen dituen ibilgailua sustatu.

4. ILDOA KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUKO DIREN HIRI-PLANGINTZAK ETA -DISEINUAK SUSTATZEA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
UDALERRIA	4.1.1	Klima-aldaketaren eraginagatik kaltetuak izan daitezken herriko eremuak identifikatu eta eraginak murrizteko neurriak hartu.
	4.1.2	Herriko gune berdeak herritarrei ezagutarazi eta erabili ditzaten sustatu.
	4.1.3	Gune urbanoak naturalizatzeko jarduerak pixkanaka garatu.
	4.1.4	Mapa termikoa bat egin, udalerriko gune kritikoenak (bero fokuek) ezagutzeko eta haietan jarduteko.
	4.1.5	Hiri planeamenduan arrisku inpaktuak kontuan hartzeko irizpideak ezarri.
MERKATARITZA	4.2.1	Industriako zein merkataritza edo turismoko garapen berrietan trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren ikuspuntua txertatzea bermatu, zehazki, bizitza erabilgarrian sor ditzakeen BEG isuriak murrizteko edo konpentsatzeko neurriak.
UDALA	4.3.1	Udal eraikinetan eta udal instalazioetan naturan oinarritutako soluzioak ezartzeko aukerak aztertu, bideragarri den kasuetan egokitzearen-neurri posible gisa.

5. ILDOA: KLIMA-ALDAKETAK PERTSONEN OSASUNEAN ETA ONGIZATEAN DITUEN EREGINAK MURRIZTEA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
ETXEBIZITZAK	5.1.1	Familia zaurgarriak identifikatu eta horiei zuzendutako jardueren protokoloa edo bide-orria zehaztu.
	5.1.2	Pobrezia energetikoa murrizteko neurriak hartu (konfort termikoa, itoginak eta fakturak ordaintzeko zailtasunak).
	5.1.3	Tenperaturaren atalase eta bero-boladen aurreikuspenen kasuetan Osakidetzako gomendioak herritarrei zabaltzeko bide eraginkorrak diseinatu.
INDUSTRIA	5.2.1	Epe ertain eta luzean udalerriko industria sektorean egon daitezkeen bilakaera aztertu Iraurgi Berritzenekin elkarlanean.
	5.2.2	Udalerriko lan eskarian egon daitezkeen aldaketak aurreikusi, klima-aldaketaren inguruko profilen beharrak antzeman ahal izateko.
UDALA	5.3.1	Bero handiko eta oso handiko egunetarako herritarrentzat baliagarriak izan litezken espazio publikoen azterketa egin eta beharrezkoa den kasuetan egokitu.
	5.3.2	Udal eraikinetan lanean dauden langileen ongizatea bermatu.
	5.3.3	Bero boladen eraginez, kalean lan egiten duten udal langileen protokoloak eta neurriak aztertu
	5.3.4	Udalaren larrialdi, babes zibil eta segurtasun arloetako prebentzio, analisi, arreta, erantzun eta jarraipenerako sistemak egokitu eta eguneratu.

6. ILDOA: NATUR-INGURUNEAK BABESTEAK

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
HERRITARRAK	6.1.1	Baso, mendi eta erreka bazterrak garbitzeko eta mantentzeko boluntario brigada sortu.
	6.1.2	Natura inguruneetan ekimen ezberdinak egitea sustatu horiek balioan jarri (hitzaldiak, dantzaldiak, aurkezpenak, etab.)
UDALA	6.2.1	Bertako landaredia eta espezieak babesteko interesekoak izan daitezkeen eremuak identifikatu.
	6.2.2	Natura 2000 baso guneak babesteko neurriak hartu (lur erosketak adibidez).
	6.2.3	Zuhaitz landaketa berrien diseinua gauzatu.

6.2.4	Herri barruko ekosistemak herri inguruko ekosistemekin lotzeko sare ekologikoa landu.
6.2.5	Biodibertsitatea zaintzeko potentziala erakusten duten eremu zehatzak identifikatu eta bertako lorezaintza egokitu.

7. ILDOA: UDALERRIAK KLIMAREKIN LOTUTA DITUEN ERRONKEI ERANTZUTEA AHALBIDERATUKO DUEN GOBERNANTZA-EREDUA ANTOLATZEA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
HERRITARRAK	7.1.1	Eskolako 2030 Agendan udalerriko klimaren eta energia-trantsizioaren lanketak sustatu.
	7.2.1	Proiektu berriak iristen direnean, jasagarritasun neurriak betetzen direla zehaztu.
UDALA	7.2.2	Instalazio berriztagarri berrien inguruko irizpideak ezarri.
	7.2.3	Alkateen Itunaren parte izateko aukera aztertu.
	7.2.4	Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programarekin bat egin, pleguetan ingurumen aldagaia txertatzea udalean zeharka landu dadin.
	7.2.5	Udal langileen prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea, udalekoak ez diren hirugarren enpresen langileak barne.

8. ILDOA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA AKTIBATZEA SUSTATZEA

SEKTOREA	KODEA	EKINTZA
UDALA	8.1.1	Sentsibilizazio eta informazio kanpainak diseinatu, sektorialak, orokorrak, jarraituak ala momentuzkoak izan daitezkeenak.
	8.1.2	Udalaren komunikazio kanaletan ingurumen alderdia txertatzea bermatu.
HERRITARRAK	8.2.1	Herritarren parte hartze espazioak sustatu
	8.2.2	Komunitate energetiko baten sorrera aztertu.
	8.2.3	Antolatuta dauden baina ingurumenarekin zuzenean lan egiten ez duten eragileekin harreman kanalak ireki.
	8.2.4.	Gazteen brigada sortu udako oporraldia aprobetxatuz eta trukean bonuak, hobariak... eman.

3.- EKINTZA-PLANAREN INPAKTU GLOBALAREN KALKULUA

3.1.- AZTERTUTAKO HELBURU KUANTITATIBOAK ETA ERREFERENTZIA URTEA

Azkoitiko Klima eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza-Planaren **neurrien irismena nahikoa** izan behar da legediak ezarritako **helmuga kuantitatiboak** lortzeko:

- Udalaren energia kontsumoa:
 - % 35ko murrizketa 2030 urterako (2018 urtearekiko)
 - % 60ko murrizketa 2050 urterako (2018 urtearekiko)
- Udalaren energia berriztagarrien sorkuntza:
 - Kontsumo totalaren % 32 hainakoa, 2030 urterako.
- Udalerriko BEG emisioak:
 - % 40ko murrizpena 2030 urterako (2015 urtearekiko)
 - % 80ko murrizpena 2050 urterako (2015 urtearekiko)

Udalaren karbono aztarnaren kasuan, 4/2019 legeak dioenari jarraiki, **2018 urtea hartu da erreferentzia-urtetzat**, legea indarrean sartu aurreko 3 urteen bataz bestekoa ateratzeko zailtasunak topatu direlako. **Udalerriko** BEG isurpenen kasuan, berriz, **2015** urtea hautatu da, datuak eskuragarri dauden lehen urtea baita.

Atal honetan helmuga kuantitatibo horiek Azkoitiko errealitatearen baitan erakutsiko dira, planeko ekintzak aurrera eramatearen bidez lortu beharreko **murrizpen zehatzak** kalkulatz.


3.2.- HELBURU KUANTITATIBO BAKOITZAREN AZTERKETA

3.2.1.- UDALAREN ENERGIA KONTSUMOA

Udalaren energia kontsumoaren azterketarako, **eraikin publikoak, argiteria publikoa eta udal flota** hartu dira kontuan. Ondorengo taulek eta grafikoek adierazten dute ekintza-planeko ekintzak aurrera eramatearen bidez lortu beharko diren **kontsumoen murrizpen eta helburuak**.

Erreferentzia urteko kontsumoa (2018)	5.515.010,23 kWh
2030 urterako kontsumoaren helburua (-% 35)	3.584.756,65 kWh
Kontsumoaren murrizpena (-% 35)	1.930.253,58 kWh
2050 urterako kontsumoaren helburua (-% 60)	2.206.004,1 kWh
Kontsumoaren murrizpena (-% 60)	3.309.006,14 kWh

Taula 1: udalaren energia kontsumoaren helburuak eta murrizpenak.




Grafikoa 3: udalaren energia kontsumoaren murrizpen helburuak.

3.2.2.- UDALAREN ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN SORKUNTZA

Udaleko energia berriztagarriek instalazioek izan behar duten **sorkuntza minimoaren** kalkulurako, lehenik eta behin 2030erako energia kontsumoaren murrizpena zenbatetsi da eta sorkuntza berriztagarrien helburua (% 32) balio horri aplikatu zaio.


Erreferentzia urteko kontsumoa (2018)	5.515.010,23 kWh
2030 urterako kontsumoaren helburua (-% 35)	3.584.756,65 kWh
Berriztagarrien gutxieneko sorkuntza (% 32)	1.147.122,13 kWh

Ekintza-plana egiteko prozesuan burututako diagnostikoan jasotzen denez, Azkoitiko Udalak energia berriztagarrien **hiru instalazio** ditu: Xabier Munibe ikastolan, Gaztanenean eta Ugarte-lgaran igerilekuan. 2022 urtean instalazio horiek, guztira, **16.852 kWh** sortu zuten.



4 eta 5 grafikoak: Azkoitiko Udaleko energia sorkuntza berriztagarriaren helburua.

2022an Udalaren instalazioek sortutako energiak, udalaren **kontsumo totalaren % 1,49** bakarrik estali zuen, beraz, instalazio berriztagarrien ezarpenean ahalegina egin beharko luke udalak 2030 urtera begira legediak ezarritako gutxienekora heltzeko.




3.2.3.- UDALERRIKO BEG EMISIOAK

Udalerriko BEG emisioen kalkulurako ondorengo sektoreak hartu dira kontuan: garraioa, industria, zerbitzuak, etxebizitzak, hondakinak eta lehen sektorea.

Taula 2: Azkoitiko BEG isurpenen murrizpen helburuak.


Erreferentzia urteko isurpenak (2015)	109.310 t CO₂
2030 urterako isurpenen helburua (-% 40)	65.586,6 t CO₂
Isurpenen murrizpena (-% 40)	43.724,4 t CO₂
2050 urterako isurpenen helburua (-% 80)	21.862,2 t CO₂
Isurpenen murrizpena (-% 80)	87.448,8 t CO₂



Grafikoa 5: Azkoitiko BEG isurpenen murrizpen helburuak.

izan behar da udalerriko **aldagai sozioekonomikoek erlazio zuzena dutela energia kontsumoarekin eta BEG isurpenekin**. Azterketa honetan Barne Produktu Gordina (BPG) eta biztanleria aintzat hartu dira:

AZKOITIKO BIZTANLERIAREN ETA BPG-AREN BILAKAERA (2015-2020)



Grafikoan antzeman daitekeenez, Azkoitiko **biztanlerian ez zen gorabehera handirik izan 2015-2020 epealdian. BPGak berriz, gora egiten du 2018 eta 2019 urteetan eta horrek energia kontsumo gehiago eta ondoriozko BEG isurpen gehiago eragin ditzakeela kontuan izan behar da.**

******Aipatzekoa da, 1/2024 legeak ezartzen dituen helburuen aurreikuspena ezin izan dela egin datu faltagatik; Datu horiek eguneratu eta 2021 urtearekiko beharrezko aurrezpenak kalkulatu beharko lirateke. Izan ere, aipatu legearen 21. Artikuluak honakoa ezartzen du: “Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan energiaren azken kontsumoan, gutxienez, % 12 aurreztuko da 2030. urtean, eta % 37ko aurrezpena 2050. urtean, 2021. urtea erreferentziaz hartuta.

Artikulu honetan ezarritako helburuak gutxienekoak izango dira, eta gorantz berrikusi ahal izango dira, Europar Batasuneko edo Estatuko erakundeek ezarritako helburuekin bat etorriz.”

3.- JARRAIPEN-PLANAREN EZAUGARRIAK

Klima eta energiari buruzko tokiko planen ebaluazio eta jarraipena egiteak bultzada emango dio udalak hartutako konpromisoen eta arauzko betekizunen gauzatze mailari. 1/2024 Legearen 18. artikuluan ekintza-planen ebaluazioa eta jarraipena 2 urtean behin egin behar dela ezartzen bada ere, udalak berrikuspen partzialak egin ditzake, maiztasuna handiagoarekin (urtea behin, esaterako).

Klima eta energia iraunkorraren aldeko Azkoitiko planaren ebaluazio eta jarraipena egiteko, jarraian zehazten diren **zereginak** eta hauek aurrera eramateko **tresnak** jasotzen dira:

- 1. Planaren urteko gauzatze maila ebaluatzea:** planaren urteko betetze-mailaren ebaluazioa egitea, Udalsarea 2030eko udalerrri guztientzat estandarizatutako metodologia komun bat erabiliz, hau da, e-mugi tresnaren “ebaluazioa” atalaren bitartez. Tresna honek emaitzen irakurketa global eta partziala egitea ahalbidetzen du, eta baita Garapen Jasangarriko Helburuei egiten zaien ekarpena aztertzea ere. Azterketa hau egiteko ekintzen karakterizazioa hartuko da oinarri.

DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDEAK

PLANGINTZA ETA KUDEAKETA

ADIERAZLEAK / PARAMETROAK

TXOSTENEN ZERRENDA

LABURPEN TXOSTENA

Tokiko Ekintza Plana (TEP)

Epea:

Lehentasuna:

Ezarpen-maila:

Aukeratu

Aukeratu

Aukeratu

Arduraduna:

Gai-arloa:

G3H:

Aukeratu

Aukeratu

Aukeratu

Sektorea:

Ardatza:

Aukeratu

Aukeratu

BILATU

EZABATU IRAGAZKIA


ZABALDU ZUHAITZA

ITXI ZUHAITZA

ZUTABEAK ERAKUTSI

ESPORTATU

Kod	Ekintzaren izena	Gai-arloa	G3H	Ardatza	Sektorea
1	Udala (Continued on the next page)				
1.1	Energia efizientzia (Continued on the next page)				



1. Irudia: Planaren urteko gauzatze maila ebaluatzeko e-mugi tresnaren ebaluazioaren atala.

2. **Emaitzen jarraipena egitea adierazleak oinarritzat hartuta:** Garapen Jasangarriaren Udal Adierazleak urtean behin kalkulatzeko, adierazle hauen bilakaera aztertzea eta EAEko batez besteko balioekin alderatzea. Horretarako, Udalsarea 2030eko udalerri guztientzat eskuragarri dagoen e-mugi tresnaren “adierazleak” atala erabili daiteke.

DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDEAK **PLANGINTZA ETA KUDEAKETA** **ADIERAZLEAK / PARAMETROAK** **TXOSTENEN ZERRENDA**

PARAMETROAK **ADIERAZLEAK** **BEG PARAMETROAK**

Sistema: ☒ Gai-arloa ikuspegi ☐ G3H ikuspegi

BILATU **EZABATU IRAGAZKIA**

ZABALDU ZUHAITZA **ITXI ZUHAITZA** **ZUTABEAK ERAKUTSI** **BALIOAK ESPORTATU** **ESPORTATU**

	Adierazlea	Mota	Iturria	G3H
-	01 LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA			
IKUSI	01_01 Lurzoru artifizializatua	Oinarritzakoa	Udalaz gaindikoa	11 Hiri eta komunitate jasangarriak
IKUSI	01_03 Bizitegi-lurzoruaren erabileraren intentsitatea	Oinarritzakoa	Tokikoa/ Udalaz gaindikoa	11 Hiri eta komunitate jasangarriak

Adierazlea		
03_02 Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua	bidaiari kopurua	GEHITZEA
Definizioa: Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua.	Metodoa: Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua	Formula: n(13)
	Iturri: Tokikoa	Adierazle Iturria: Udala, hiri garraioa kudeatzen duen konpainia
	Balioa Ref: Gai-arloa: 03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	Iturri Balorea Ref: G3H: 11 Hiri eta komunitate jasangarriak

2. Irudila: Adierazleak oinarritzat hartuta planaren emaitzen jarraipena egiteko e-mugi tresnaren adierazleak atala.

3. **Udalerriko BEG inbentarioa kalkulatzeko:** BEG inbentarioa tresnaren bidez hurrengo sektoreei lotutako berote-efektuko gasen emisioen urteko kalkulua egitea: mugikortasuna, bizitegiak, zerbitzuak (Udala barne sartuta), hondakinak eta lehen sektorea. **Kalkulua urtero eginez gero, Azkoitiko ekintza-planaren ezarpenari esker lortu nahi diren arintzearekin zerikusia duten helmugen lorpene neurtu ahal izango da.**
4. **Udalaren karbono-aztarna kalkulatzeko:** Karbono-aztarna tresnaren bidez Udalaren jardunari lotutako hurrengo sektoreen BEG isurketen urteko kalkulua ateratzea: eraikinen eta argiteria publikoaren kontsumo energetikoa eta udal ibilgailuen erregai kontsumoa. **Kasu honetan, udal jardunari dagozkion ekintza-planeko ekintzak aurrera eramanez ezarritako helburu kuantitatiboen lorpene neurtu ahal izango da.**

5. **Emaitzak komunikatzea eta kontuak ematea:** Klima eta energiari buruzko tokiko planaren ebaluazio- eta jarraipen-prozesuaren emaitzak ezagutzera ematea eta konpartitzea, urteko (edo bi urteko) txosten baten bidez. Bertan, planaren aurrerapenen laburpena eta baita ere jarraipen-adierazle nagusien emaitzak jasoko dira. Gainera, 4/2019 Legeak (14. artikulua) eta 1/2024 Legeak (54. artikulua) planaren ezarpenean urtean egindako aurrerapenak komunikatzeko betebeharra ezartzen du.

4.- EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA

1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

1. 1 PROGRAMA: ETXEBIZITZAK

Kodea	1.1.1	Ekintza	Udalerriko etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren azterketa egin.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	Eskualdeko Energia Mahaiak duela urte batzuk egindako azterketa berreskuratzea, eguneraketa lan bat egiteko eta herriko etxebizitzaren egoera zein den ezagutzeko (EJren energia ziurtagiriaren erregistroa ere kontsultatuko da egoerara hurbiltzeko). Gerora, helburua litzateke herritarrei jakinaraztea zein onura dakartzan etxebizitza birgaitzeak erosotasuna handitzeko, eraginkortasuna hobetzeko, etab.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2027	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko II. Energia-plana.					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AKZOITIKO UROLA

Kodea	1.1.2	Ekintza	Etxebizitzak berritzeko plan estrategikoa gauzatu, lehentasunak definituz eta aktuazioak proposatuz.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	Ekintza aurrera eramateko jarduerak: 1.1.1 ekintzan jasotako azterketatik abiatuz plana diseinatzea izango da lehen pausoa, bertan herritarren artean birgaitzea sustatzeko pizgarriak barneratuko dira (aholkularitza, dirulaguntzen inguruko informazioa, udal dirulaguntzak, onura fiskalak, etab.). - Eraikuntza eta birgaitzerako materialak erabiltzeko orduan horien bizi-zikloaren analisia eta karbono aztarna kontuan hartzea. - Eraikuntzetan zura erabili dadin sustatzea.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak	KONTU-HARTZAILETZA					
Epea	Hasiera urtea	2028	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Plan estrategikoaren lanketa azpikontratatz gero: 5.000 € - 8.000 € artean. Herritarrei zuzendutako dirulaguntzak: 200.000 € urtean. *	
GJH	11. Hiri eta komunitatea jasagarriak					
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko II. Energia-plana.					
Oharrak	*Azkoitiko Hirigintza Sailak kudeatzen duen dirulaguntza programa energia eraginkortasuna sustatzeaz gain, irisgarritasuna hobetzeko eta etxebizitzen energia berriztagarria ezartzen laguntzeko ere bada. Beraz, “Aurreikusitako kostua” izeneko atalean jaso den aurrekontuan esandako jarduketara-mota guztiak barneratuta daude.					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.1.3	Ekintza	Energia aurrezteko sentsibilizazio kanpainak sustatu.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	Ekintza aurrera eramateko jarduerak: - Herritarrei faktura elektrikoa ulertzeko argibideak eskaini. - Energia arduraz erabiltzeko ohiturak zabaldu. - Energia berriztagarrien instalazioak ezartzeko aholkularitza eskaini.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta ALKATETZA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		3.000€/urtean	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko II. Energia-plana.					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Sentsibilizazio kanpainen bidez herritarren % 5arengana iristea estimatu da, eta horiek euren kontsumoa % 15ean murriztea lortuko balute, 254.054 kWh aurreztuko lirateke urtean. (2020ko etxebizitzaren kontsumoaren datua hartu da kontuan)	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		47,6 t CO₂e (2020ko etxebizitzaren emisioak hartu dira kontuan)	

Kodea	1.1.4	Ekintza	Etxebizitza zaurgarrietan, energia-eraginkortasuna hobetzeko bisitak eta energia eskuhartzeak egin.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	Eskualdeko Energia Mahaiak duela zenbait urte egindako lanketa berreskuratu, aztertu eta hortik abiatuz egoera zaurgarrian dauden familiei aholkularitza eskaintzeko baliabide posibleak finkatu.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta GIZARTE ZERBITZUAK					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2026	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideak (bisitak) Eskuhartzeen kostua kasuan kasu zehaztu beharko da.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko II. Energia-plana.					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Esku-hartze motaren araberakoa.	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.1.5	Ekintza	Aholkularitza energetikoa emateko asmoz, energia bulegoa martxan jartzea aztertu herritarrek energiaren arloan izan ditzaketen zalantzak argitzeaz gain, energia aurrezpena, energia eraginkortasuna eta autokontsumorako aukerak azalduko dituen.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	Hausnarketa egin zein energia bulego mota martxan jarri aztertzeko. Energia bulegoaren lan-eremua (udalerría, eskualdea), hartzaileak (herritarrak, enpresak, komunitateak, eragileak), gaiak (energia eraginkortasuna, energia berriztagarriak, birgaitze energetikoak...) eta izango dituen funtzioak aztertuko da. Energia bulegoaren funtzioak definitu eta pilotaje moduan 15ean behin aurrez aurreko zerbitzua eskaini, herritarrek zer nolako harrera egiten dioten aztertzeko eta horren arabera erabakiak hartzeko. Funtzio posibleak: - Faktura energetikoaren azalpena eta zalantzak argitzea. - Energia aurrezpenaren eta eraginkortasunaren inguruko aholkularitza ematea. - Energia berriztagarrien erabilera eta energia komunitateen berri ematea. % 100 berriztagarria den elektrizitate kontratazioa sustatzea. - Energia birgaitzearen inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzea. - Indarrean dauden dirulaguntzak, pizgarri fiskalak, etab.en inguruan informatzea.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta ALKATETZA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2026	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		15.000€/urtean	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

1. 2 PROGRAMA: UDALA

Kodea	1.2.1	Ekintza	Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko dauden neurri fiskalak eguneratu eta herritarrei komunikatu.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDALA					
Deskribapena	Lehen pausoa fiskalitate energetikoa aztertu, hobetu ote daitekeen baloratu eta hortik abiatuz aldaketen berri eman ohiko komunikazio kanalen bidez (besteak beste, Ingurumen Mahaian parte hartu zuten eragileekin partekatu).					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta KONTU-HARTZAILETZA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.2.2	Ekintza	Hiriko hiri-garapen berrietan energia eraginkortasun handiko irizpideak ezarri.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDALA					
Deskribapena	HAPOaren berrikuspenean 4/2019 eta 1/2024 legeetan jasotako obligazioak betetzeko pausoak eman, besteak beste, energia jasangarritasun azterketa osatuz, gerora udaleko bulego teknikotik energia eraginkortasun handiko irizpideak ezarri ahal izateko.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin egin beharreko jarraipena, HAPOaren idazketa prozesuaren baitan.	
GJH	11. Hiri eta komunitate jasangarriak					
Erlazionatutako plana:	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.2.3	Ekintza	Kontsumoen eta berotegi efektuko gasen emisio datuak publiko egingo dituen web atala sortu.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDALA					
Deskribapena	SIE sistemaren informazioa udal web gunean barneratu eta herritarrei non topatu dezaketen komunikatu.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta ALKATETZA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2025	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehenetasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)		9.000€/urtean.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.2.4	Ekintza	Etxebizitzen birgaitzea oztopatzen duten irizpideak berrikusi, alde zaharreko etxebizitza babestuetan batez ere.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDALA					
Deskribapena	PERCHA aldaketa sustatu, alde zaharreko birgaitzea ahalbidetzeko (isolamendurako materialak, eta abar baimentzeko), araudian malgutasuna lortzeko edo araudia aldatzeko. Interesgarria litzateke udal mailan gai hau lantzeko foro bat sortzea. Dirulaguntzak ezartzeko aukerak aztertu, alde zaharreko birgaitzeak sustatzeko.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKO					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2026	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin.	
GJH	11. Hiri eta komunitate jasangarriak					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	UDALA		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.2.5	Ekintza	Udal langileek telelanerako aukera izan dezaten sustatu garraioari loturiko kontsumo eta isuriak murrizteko.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDALA					
Deskribapena	Telelana arautzen duen ordenantza 2024ean onartu zen. Egun, ordenantzak arauturikoa betetzen bada, langile guztiek dute aukera astean bi egunetan telelana egiteko.					
Arduradun nagusia	IDAZKARITZA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2025	Ekintza jarraitua?	BAI
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Ekiditen diren bidaien eta garraio motaren araberakoa.	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

1. 3 PROGRAMA: ZERBITZUAK



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.3.1	Ekintza	Komertzio eta enpresa txikien energia-eraginkortasuna bultzatu Iraurgi Berritzenekin batera.			
Helburu Estrategikoa	1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	ZERBITZUAK					
Deskribapena	Ekintza aurrera eramateko jarduerak: - Kulturako sailari Iraurgi Berritzenetik egiten diren egitasmoen berri eman eta bileretan parte hartzeko aukera eskaini. - Iraurgi Berritzenetik gauzatzen diren ekintzekin jarraitu.					
Arduradun nagusia	KULTURA					
Beste arduradunak	Ingurumen Teknikaria					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea		Ekintza jarraitua?	BAI
Lehentasuna	ALTUA		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Zerbitzuak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

1. 4 PROGRAMA: INDUSTRIA

Kodea	1.4.1	Ekintza	Industrian eraginkortasun energetikoa bultzatzen duten programak mantendu eta sustatu Iraurgi Berritzenekin elkarlanean.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	INDUSTRIA					
Deskribapena	Iraurgi Berritzenetik Eskualdeko Energi Mahaia kudeatzen da. Energia Mahaitik Industrietara bideratuta egitasmoak bideratzen dira, diagnostiko energetikoa egin, energia berriztagarriak jartzeko potentzialtasuna aztertu, egoera optimizatzeko azterketak....					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Energi Mahaiean Ingurumen teknikariak parte hartzen du Ingurumen zinegotziarekin batera					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	BAI
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Udalarentzat ez du kosturik. Foru Aldundiak emandako diru laguntzarekin eramaten dira aurrera ekintzak.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Industria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.4.2	Ekintza	Industriaren kontsumo eta emisioen jarraipena egiteko sistema diseinatu Iraurgi Berritzenekin batera.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	INDUSTRIA					
Deskribapena	Iraurgi Berritzen erakundeak Industriekin harreman zuzena du. Horregatik -erakunde hori da gai hau bideratzeko egokiena. Energia mahaiairen bitartez bideratuko da ekintza hau. Gaur egun zer egiten den aztertu eta ekintza garatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezagutuko ditugu aipaturiko sistema diseinatzeko.					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Ingurumen teknikaria eta ingurumeneko zinegotzia					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Energia mahaiko baliabideak erabiliko dira.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Industria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

1. ILDOA: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA

1.5 PROGRAMA: UDAL ERAIKINAK

Kodea	1.5.1	Ekintza	Auditoretza energetikoak berrikusi eta beharrezkoak direnak berritu.
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	4/2019 Legearen 13. Artikulua: 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikinetan 4 urtean behin egin behar da auditoretza energetikoa. Elkarguneko eta ikastolako auditoretzak 2025ean berritu behar dira eta komeni da kultur etxekoa ere 2025ean gauzatzea. Baztartxo eta Intxausti 2026an berritu behar dira. Hauek dira udalak eginda dituen udal eraikinen auditoretzetako datu adierazgarrienak: - Elkargunea (2018): hau da gehien kontsumitzen duen udal eraikina eta aldi berean energia eraginkortasunaren ikuspegitik eraginkortasun txikiena duena. Bertan kirol instalazioak aurkitzeaz gain, kultura arloko espazioak ere badaude, eta baita musika-eskola, taberna eta izaera balioanitzeko hainbat gela ere. Eraikin honek gas naturala eta erregaiak erabiltzen ditu berokuntzarako (gehienbat gas naturala). Argiztapenari dagokionez, 1070 luminariak 95,57kWko potentzia dute orotara. Auditoretza honek igerilekuen balantze energetikoaren azterketa berezia ere barneratzen du. Auditoretza honetan planteatzen diren neurri nagusiak igerileku-hodien eta hidromasajearen erabilera efizientean oinarritzen dira, biek energia-eskari handia dute eta. Proposatutako neurri guztiak eta horien lehentasun-mailak 11. Atalean barneratuta daude. - Xabier Munibe ikastola (2018an egin zen auditoretza): energia gehien kontsumitzen duen bigarren udal eraikina da. Berokuntzarako gas naturala erabiltzen duen eraikina. Potentzia termiko maximoa: 440 kW. Argiteriara zuzendutako potentzia oso altua da (85,88 kW da instalatutako potentzia elektrikoa). Bertan jasotakoren arabera, eraikin honetako arazo nagusia kontratatutako potentzia eta behar den energiaren arteko desfasea da. Elektrizitatea kontsumitzen duen erabilera-mota nagusia argiztapena da eta bertan proposatutako neurri nagusia argiak LED eratakoengatik ordezkatzeko joatea da. Positibotzat jotzen dira instalazio termikoan egin diren ordezkatzeko neurriak baina 10. eta 11. Ataletan neurri osagarriak proposatzen dira (erradiadoreetan balbula termostatikoak jartzea, esaterako). Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa ere neurri gisa proposatzen da. - Baztartxo antzokia (2021eko martxoan burutua): kontsumoen analisia egiteko datuak 2018ko azarotik 2019ko urrira bitartekoak izan ziren (2020ko datuak aintzat hartzea baztertu zen, pandemia dela eta eraikin honetan egin ohi diren ekitaldietako jende pilaketak ekiditeko neurriengatik). Energia elektrikoa erabiltzen duen eraikin bat da (bai berokuntzarako bai argiztapenerako). Auditoretzan jasotakoaren arabera, eraikin honetan energia erreaktiboaren kontsumo altua antzeman da (kontsumitzen den energia aktiboaren % 33, hain zuzen) eta horrek fakturazioan penalizazioa ekarri ohi duenez (bertan jasotako kalkuluen arabera, hilean 13,31 euro gehiago ordaintzen ari da udala, batez beste, bere faktura elektrikoan -2018ko azarotik 2019ko urrira 159,72 €ko		

	penalizazioa-), energia erreaktibo hori neutralizatzeko bateria kondentsatzaile bat jartzea proposatzen da. Bestetik, nahiz eta eraikin honetako argi gehienak LED erakoak izan, badira oraindik lanpara fluoreszente batzuk (batez ere eszenatokiko eta eserlekuetako fokuak -104 orotara-) eta horiek LED teknologiadunengatik ordezkatzeko gomendatzen da. Bestelako neurriak: bero-ihesak ekiditeko asmoz, arotzeria PCVko kristalengatik ordezkatzeko (honek urtean 318,29 euroko aurrezpena eragingo luke); klimatizazio-sistema ordezkatzeko (aerotermin bidezko bero-ponpa jartzea proposatzen da). Proposatutako neurri guztien artean energia aurrezpen handiena klimatizazio-sistema aeroterminarengatik ordezkatzekoagatik lortuko litzateke (urtean 17.350 kWh-ko aurrezpena eta 5.860,33 €ko aurrezpen ekonomikoa) baina inbertsio altuena suposatzen duen neurri ere bada (80.000 € inguru). - Intxausti jauregia (2021eko apirilean eta maiatzean burutua): auditoretzan proposatutako neurriei esker udalak urtean 16.799,55 kWh-ko energia aurrezpena lortuko luke. Balioanitzeko eraikin bat da (bulegoak, bilera-gelak, eskualdeko garapen agentziaren bulegoak, eta abar). Kontsumoen analisia egiteko datuak 2019 urte osoari dagozkionak dira argindarrari dagokionez eta 2018ko azarotik 2019ko urrira bitartekoak gas naturalari dagokionez (2020ko datuak aintzat hartzea baztertu zen, pandemia dela eta 2020ko martxoan ezarri ziren murrizketengatik). Berokuntzarako instalazio termikoaren potentzia nominala 103 kWkoa da -erradiadoreena zehazki- (nahiz eta batez ere gas naturala erabiltzen den, badira eraikinean zenbait berogailu elektriko) eta galdarena, 119,8 kWkoa. Argiztapenari dagokionez, fluoreszenteak eta halogenoak erabiltzen dira eraikinean (LED batzuk ere badaude -fokuak-). Eraikinak baditu energia erreaktiboa neutralizatzeko bateria kondentsatzaileak baina hala eta guztiz ere, urtarrila, otsaila, azaroa eta abenduan fakturan penalizazio txikiak izan zituen udalak (4,98 € urtean -0,45€/hilabete-). Erabilera eta horiei lotutako kontsumo motak aztertuz, argiztapena (kontsumo osoaren % 55) eta ekipo ofimatikoek (kontsumo osoaren % 24) suposatzen dute energia kontsumoaren zatirik handiena (baita kostu ekonomiko handiena ere - guztizkoaren ia % 80-). Proposatutako hobekuntzei dagokionez, energia-aurrezpena handiena instalazio fotovoltaiako bat ezartzetik eratorritakoa izango litzateke (urtean 8.789,81 kWh aurreztuko lirateke eta inbertsioa 9.000 € ingurukoa litzateke). Ondoren luminarien ordezkatzeko aipatzen da (horrelako inbertsio baten bidez urtean 5.858,38 kWh aurreztuko lirateke eta inbertsioa 2.660 € ingurukoa litzateke). Bestalde, kontratatutako potentzia elektrikoa optimizatuz urtean 4.392,50 €ko aurrezpena zenbatetsi da.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		1,8 € / m² eraikin (gutxi gora beherako datua)	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					

Erlazionatutako plana:	--		
Oharrak	--		
Sektorea	Udal eraikinak	Aurrezpen energetikoa (kWh)	--
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO₂)	--



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.5.2	Ekintza	Argiteria publikoaren auditoretza egin.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	4/2019 13. Artikulua, 3. Atala: kanpoko argiteria publikoari aparteko auditoretza energetikoa egingo zaio eta 4 urtean behin berrikusteko betebeharra dago. Auditoretzak izan beharreko gutxieneko edukiak 13. Artikuluko 4. Atalean zehazten dira eta baita erlazionatutako araudian.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2029	Ekintza jarraitua?	
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		5,8 € argi puntu bakoitzeko (gutxi gora beherako datua)	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.5.3	Ekintza	Argiteria publikoaren eta eraikinen potentzia kontratatuaren optimizazioa egin.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Datuak aztertu SIEa (energia-informazioa biltzeko eta jarraipena egiteko sistema) baliatuz eta txostenetan jasotako gehiegizko potentziak dituzten eraikinak eta argiterian potentzia-aldaketak eskatu/bideratu.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2026	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Potentziaren eguneratzeak ez dakar energia kontsumoaren murrizpenik, aurrezpen ekonomikoa baizik.	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.5.4	Ekintza	Udal eraikinetan energia aurrezteko neurriak hartzea (leihoak, estalkiak)			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	SIEko txostenak aztertu eta auditoretza energetikoa egiteko derrigortasuna ez duten eraikinen kasuan, udal barnean plangintza bat prestatu, jarduera zehatzak aurrera eramateko dauden dirulaguntzak zehaztuz.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2027	Amaiera urtea	2028	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin gauzatzeko ekintza.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Eraikinaren eta neurrien araberako aurrezpena.	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	1.5.5	Ekintza	Auditoretza energetikoan aurreikusitako hobekuntzak aurrera eramateko neurriak hartu, Elkargunean batez ere.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Lehenik auditoretzak berritu eta ondoren bertan jasotako emaitzak aztertu, hurrengo 4 urteetarako jardueren programazio bat landuz. Programazio horretan barneratu beharko dira urte bakoitzean gauzatuko diren neurriak. Elkargunearen kudeaketa lizitatzera aterako da 2025ean eta auditoretzan jasotako neurriak enpresak aurrera eraman beharko dituen ala ez aztertu beharko du udalak.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	KONTU-HARTZAILTZA eta ALKATETZA					
Epea	Hasiera urtea	2026	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Hartzen diren neurrien araberakoa.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.5.6	Ekintza	Udal eraikin eta zerbitzuen energia kontsumoen jarraipena egin, udal inbentarioa eguneratuta mantentzen dela bermatuz.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Udal inbentarioa eguneratuta mantentzen da SIE sistemaren bidez eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzen da bulego teknikotik. Era berean, energia kontsumoen jarraipena SIErekin egiten da.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		9.000€/urtean	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	1.5.7	Ekintza	Udalaren ibilgailu flota berritzeko plangintza bat definitu.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	4/2019 Legearen 21. Artikuluak ezartzen du administrazio publikoek ordezko erregaien erabilera sustatuko dutela eta ibilgailuen erosketa berrietan erregai horiek erabiltzea bermatu beharko dela. Horregatik, Urola Erdiko Energia Mahaiak landutako udal flotaren inguruko azterketa berreskuratu eta eguneratu egingo da, gero plangintza definitzeko.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak						
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2027	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin	
GJH	7. Energia Irigarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Ez luke kontsumoaren aurrezpenik ekarriko.	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		2022. Urtea udal flotaren eraginez (Urbanue kontuan hartu gabe) 42,46 t CO ₂ e isuri ziren. Erregai alternatiboak erabilia gutxi gora behera erdia isuriko litzateke 21, 23 t CO₂e aurreztuz. **Gasolioaren emisio-faktorea argindarrarenaren ia bikoitza izan da azken urteetan: gasolioa 0,268 eta argindarra 0,14 (2021).	

Kodea	1.5.8	Ekintza	Argiteria sistema LED sistemen bitartez aldatzeko neurriekin aurrera egin.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Aldaketak egin behar direnean daudenak LEDengatik ordezkatzeko dira.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak						
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)		Aldatu beharreko argien araberakoa	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		% 60 eta % 80 artean	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		% 60 eta % 80 artean	

Kodea	1.5.9	Ekintza	**Erregai fosilak erabiltzen dituzten eta udalaren jabetzako eraikinetan dauden ekipamenduen ordez jatorri berriztagarriko energiak erabiltzen dituzten beste batzuk ezarri, modu progresiboan.			
Helburu Estrategikoa	1 HE: ENERGIA AURREZTEA ETA ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	1/2024 legearen 29. Artikulua: administrazioak energia berriztaezinak alde batera uztea. <u>Jarduera:</u> Gaztaneneako galdara aldatzeko proiektua definitu eta gauzatu. (2.3.4 ekintzarekin batera garatzeko ekintza)					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak						
Epea	Hasiera urtea	2028	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehenetasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Ekipamendu mota eta erabileraren araberakoa	
GJH	7. Energia Irigarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Ez du energia aurrezpenik suposatzen	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		Gasoliozko galdarak 2022 urtean 32.502 kWh kontsumitu zituela kontuan hartuta, 8,71 t CO₂e/ urte aurreztuko lirateke. **2021ko gasolioaren emisio-faktorearekin (0,268 kg CO ₂ e/kWh) egin da kalkulua. Orokorrean, 2030erako udalak bere kontsumoaren % 32 autohornitu beharko duenez energia berriztagarriak erabiliz, emisioak jaitsi egingo dira, 123 t CO₂e saihestuz. ** (2022ko emisioen datua erabili da estimazioak egiteko.)	

2. ILDOA: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA SUSTATZEA

2.1 PROGRAMA: ETXEBIZITZAK

Kodea	2.1.1	Ekintza	Autokontsumo indibiduala eta eraikin mailan partekatutakoa sustatu.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	1/2024 legearen 24. Artikulua, 7. Atala: Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, energia elektriko eta termiko berriztagarria sortu eta biltegitatzeko sistemak garatzea eta ezartzea bultzatuko dute, baita autokontsumoa eta ibilgailu elektrikoaren erabilera ere. Energia beharrak iturri ezberdinetako energia berriztagarrietatik lortu ahal dira: eguzki energia, hidroelektrikoa edo/eta eolikoa. Dauden aukera ezberdinetatik ekoitzi daitekeen energiaren gaineko azterketak gertuko etorkizunean hartu beharreko bidea zehazten lagundu ahal dio Udalari. Energia hidroelektrikoaren aukerarako hainbat gai aztertu beharko dira aurrez: uraren kontzesioa, araztegia, kanalaren egoera. <u>Jarduerak:</u> - Eguzki-mapa egin eta estalkien egokitasunari buruzko azterketa egiten lagundu. - Etxebizitzetan eguzki-plaka fotovoltaiakoak jartzea sustatu. - Azkoitiko minihidraulikoen jabetza eta egoera aztertu - Energia berriztagarrien inguruko informazioa eta aholkularitza eskaini - Dirulaguntzak bideratu					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		10.000€/urtean.	
GJH	7. Energia Irigarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	2.1.2	Ekintza	Biomasa bidez beroa sortzeko sistemen ezarpena handitu bizitegi-sektorean eraikin berrietan ezarpenerako aukera aztertuz.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	ETXEBIZITZAK					
Deskribapena	Energia bulegoaren bidez, egonez gero, edo bestelako bideen bidez, energia berriztagarrien bidez berokuntza sistemak ezartzeko aholkularitza eskaini eraikin berrietan berriztagarriak bultzatzeko.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Energia bulegoaren lanen baitan aurreikusitako kostua izango litzateke.	
GJH	7. Energia Irigarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Etxebizitzak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

2. ILDOA: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA SUSTATZEA

2.2 PROGRAMA: INDUSTRIA

Kodea	2.2.1	Ekintza	**Industrian autokontsumoa eta autokontsumo partekatua sustatu.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	INDUSTRIA					
Deskribapena	Iraurgi Berritzen erakundeak Industriekin harreman zuzena du. Horregatik -erakunde hori da gai hau bideratzeko egokiena. Energia mahaiairen bitartez bideratzen da ekintza hau. Azken bi urtetan industrian autokontsumoa sustatzeko ekimenak burutu dira. Enpresa batzuk parte hartu dute ekimenean, dituzten aukerak aztertzea eta izango dituzten onurak kuantifikatzea					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Ingurumen teknikaria eta ingurumeneko zinegotzia					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	BAI
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Energia mahaiko baliabideak erabiliko dira.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	1/2024 legeak ezarritako betebeharra					
Sektorea	Industria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	2.2.2	Ekintza	Industria sektorean egindako proiektu eta jardueren jarraipena egiteko programa edo egitasmoa diseinatu eta aurrera eraman.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	INDUSTRIA					
Deskribapena	Iraurgi Berritzen erakundeak Industriekin harreman zuzena du. Horregatik -erakunde hori da gai hau bideratzeko egokiena. Energia mahaiaaren bitartez bideratuko da ekintza hau. Gaur egun zer egiten den aztertu eta ekintza garatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezagutuko ditugu aipaturiko sistema diseinatzeko.					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Ingurumen teknikaria eta ingurumeneko zinegotzia					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea		Ekintza jarraitua?	BAI
Lehentasuna	ALTUA		Aurreikusitako kostua (€)		Energia mahaiko baliabideak erabiliko dira.	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Industria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

2. ILDOA: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA SUSTATZEA

2.3 PROGRAMA: UDAL ERAIKINAK



AZKOITIKO UDALA

Kodea	2.3.1	Ekintza	Eraikin publikoetako estalkien potentzialtasunaren azterketaren ¹ ondorengo jarduerak landu lehenik eta behin jarduerak gauzatzeko programazioa definituz.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	2023an egindako azterketa berreskuratu, bertan jasotako proposamenen programazioa landu eta progresiboki aurrera eraman. Udal eraikinen estalkiak berriztagarrien instalaziorako lagatzeko orduan Alde Zaharreko etxebizitza eta herritarrei lehentasuna ematea.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Instalazioa: 217.580 € (4,64 urteetan itzulketa)	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	2.3.2	Ekintza	Udal eraikinetan egon daitekeen soberako energiarekin zer egin pentsatu.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Ekintza hau epe luzeko ekintza da. Honen aurretik energia sortzeko instalazioak jarri behar ditu Udalak. Egin dugun ikerketaren arabera, ez litzateke soberakin gehiegi egongo. Hala ere, Udalak energia ekoizteko dituen baliabideak gauzatu ondoren ekingo zaio ekintza honi.					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Ingurumen Teknikaria					
Epea	Hasiera urtea	2030	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	Baxua		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	2.3.3	Ekintza	Udal eraikinetako berokuntza sistemak berritzeko azterketa egin.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	INDUSTRIA					
Deskribapena	Egun Udal eraikinetan berokuntza sistema ez eraginkorrak daude. Lehenengo pausua diagnosi bat egitea izango litzake eta ondoren egoera hobetzeko plangintza bat garatu beharko litzateke, aurrekontua zehaztuz eta diru laguntza posibleen azterketa eginez. Egun, Azoka plazaren klimatizazio proiektua dago abian. 2025ean proiektua idatzi eta diru laguntza bideratzea da helburua.					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Ingurumen Teknikaria					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2028	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		30.000 €	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Industria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	2.3.4	Ekintza	Elkarguneko energia kontsumoa murrizteko neurriak hartu			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Auditoretza energetikoa 2025ean burutu eta bertan jasotako neurrien lehentasunaren araberako ezarpena egin.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA, ALKATETZA, KONTU-HARTZAIETZA, KULTURA.					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		3.000€	
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	2.3.5	Ekintza	Elkarguneko proiektu berrian energia berriztagarriak ezartzeko plana egin.			
Helburu Estrategikoa	2 HE: TOKIKO ENERGIA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIA BULTZATZEA					
Programa	UDAL ERAIKINAK					
Deskribapena	Potentzialtasun ikerketan Elkargunearen handitzea egiten denean energia berriztagarriak ezartzeko aukera ere baloratu zen. Elkargunearen berrikuntza aurrera eramaten denean, estalki berria eraikitzearekin batera instalazio fotovoltaiakoa aintzat hartzea kontuan izan beharko litzateke.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA, ALKATETZA, KONTU-HARTZAILETZA, KULTURA.					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2026		Amaiera urtea	2028	Ekintza jarraitua?
Lehenetsuna	Altua			Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin
GJH	7. Energia Irisgarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Udal eraikinak		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA

3.1 PROGRAMA: UDALERRIA

Kodea	3.1.1	Ekintza	Mugikortasun jasangarrirako planaren oinarrizko printzipioak zehaztu.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Mugikortasun Plana 2024an lantzen hasi da kontratatutako enpresa (inkestak egin dira, neurketak, ..) eta irizpideak 2025ean adostuko dira.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta UDALTZAINGOA					
Beste arduradunak						
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2025	Ekintza jarraitua?	
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)	48.000 € (Mugikortasun planaren baitan zehaztuko dira. 48.000 euro plana bera diseinatzearen kostua da)		
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko Mugikortasun Plana eta Azkoitiko Mugikortasun Plana.					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	3.1.2	Ekintza	Mugikortasun jasangarrirako plana egin.				
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA						
Programa	UDALERRIA						
Deskribapena	Mugikortasun Plana 2024an lantzen hasi da kontratatutako enpresa (inkestak egin dira, neurketak, ..) eta irizpideak 2025ean adostuko dira. 4/2019 Legearen 24. Artikuluan jasotzen da 5.000 biztanletik gorako udalerriek hiri-mugikortasunerako plan bat onartzeko betebeharra. Gainera, 1/2024 legeak ere, bere 31. Artikuluan zehazten du egin behar hori. Planak Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legean ezarritakoaren arabera egin behar dira.						
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta UDALTZAINGOA						
Beste arduradunak	--						
Epea	Hasiera urtea	2024		Amaiera urtea	2025	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua			Aurreikusitako kostua (€)		48.000 €	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.						
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko Mugikortasun Plana eta Azkoitiko Mugikortasun Plana.						
Oharrak	--						
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--		
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--		



AZKOITIKO UDALA

Kodea	3.1.3	Ekintza	Eskualdeko eta udalerriko mugikortasun planaren integrazioa bermatu.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	2024an eskualdeko mugikortasun diagnostikoa egin da eta Azkoitiko Plana lantzeko prozesua 2024an hasi da. Eskualdeko diagnostikoa Azkoitiko Plana landuko duen enpresari erraztu zaio eta horrek ahalbidetuko du gerora 2 planen arteko koordinazioa. Azkoitiko Plana prest dagoenean eskualdeko plana landuko duen enpresari erraztuko zaio.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2026	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Mugikortasun baitan.	planaren
GJH	3. Osasuna eta ongizatea. 11. Hiri eta komunitate jasangarriak. 7. Energia Irigarria eta ez kutsagarria					
Erlazionatutako plana:	Urola Erdiko Mugikortasun Plana eta Azkoitiko Mugikortasun Plana.					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	3.1.4	Ekintza	2021. urtean eskualde mailan egindako bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzeko diagnostikoa aztertu, eta beharko balitz, zabaldu.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	2021eko diagnostikoa Azkoitiko Plana lantzen ari den enpresari erraztu zaio eta plan berriaren diseinuan kontuan izango da.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2026	Ekintza jarraitua?	
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Mugikortasun planaren baitan	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko mugikortasun plana. Urola Erdiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	3.1.5	Ekintza	Bizikletaren erabilera sustatu			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Mugikortasun Planean bizikletaren erabilera sustatzeko asmoz, bizikletaren aldeko lerro berezi bat barneratu, bere tokia izan dezan. Jarduera posibleak: - Bizikleta elektrikoen eta ez elektrikoen erabilera sustatu. - Bizikletaren erabilera erraztu (industria guneeetan, herri barruan, eskolan, aparkalekuak bermatu...). - Udaletik herritarrentzat bizikletak eskuragarri jartzeko aukera baloratu.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana. Urola Erdiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Bizikletaren erabilera sustatzearekin garraioaren kontsumoak % 1,5 murriztu daitezkeela estimatu da. Hau da, 1.847.162 kWh (2022ko garraioaren kontsumo datua erabilita)	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		Kasu horretan, 495 t CO₂e isurtzea saihestuko litzateke.	

Kodea	3.1.6	Ekintza	Bidegorri sarean hobekuntzak egin (asfaltatzea, etab.) eguneroko bidaietarako erabilgarriagoak egiteko.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Bidegorri sarean hobekuntza egiteko asmoz (mantentze lan egokiak), udal aurrekontuetan partida zehatz bat ezarri.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta KONTU HARTZAILEA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2026		Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?
Lehentasuna	Txikia			Aurreikusitako kostua (€)	10.000€/urtean	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Bizikletaren erabilera sustatzearekin garraioaren kontsumoak % 1,5 murriztu daitezkeela estimatu da. Hau da, 1.847.162 kWh/urte (2022ko garraioaren kontsumo datua erabilita)	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		Kasu horretan, 495 t CO₂e /urte isurtzea saihestuko litzateke.	

Kodea	3.1.7	Ekintza	Auto konpartitua erabiltzeko proiektua definitu eta abiarazi.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Herritarren interesa pizteko halako proiektuen inguruko ereduak aurkezteko informazio-saio bat antolatu. Eredu ezberdinak aztertu eta herrira egokitzen dena aukeratu, gero bideragarritasuna aztertu ahal izateko.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2027	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	
Lehentasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)	5.000€ hasierako fasera begira (herritarren interesa piztea)		
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerrria	Aurrezpen energetikoa (kWh)			Auto konpartituta erabiltzeko proiektuaren bidez udalerriko garraioaren kontsumoa % 0,5 murriztea estimatu da. Hau da, 615.720 kWh/ urte.	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO ₂)			Kasu horretan, 165 t CO₂e/urte isurtzea saihestuko litzateke.	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	3.1.8	Ekintza	Auto pribatuaren erabilera murrizteko eta garraio publikoaren erabilera bultzatzeko neurriak hartu.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Mugikortasun Planaren lanketa ekintza hau mahai gainean jarriko da. Jarduera posibleak: - Herrigunera auto pribatuan sartzeko oztopoak ezarri, lanerako sarrera eta irteera ordutegi ohikoenetan garraio publikoaren eskaintza zabalduz, besteak beste. - Motordun ibilgailuen herrigunerako sarrera mugatu. - Garraio publikoaren erabileraren aldeko sentsibilizazio-ekintzak antolatu.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta UDALTZAINGOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2027		Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?
Lehentasuna	Altua			Aurreikusitako kostua (€)		3.000€/urtean kanpainetarako
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)			Garraio publikoaren erabilera sustatuta udalerriko garraioaren kontsumoa % 2 murriztea estimatu da. Hau da, 2.462.882.8 kWh/urte .
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)			Kasu horretan, 660 t CO₂e/urte isurtzea saihestuko litzateke.

Kodea	3.1.9	Ekintza	Auto elektrikoaren erosketaren sustatzeko baliabideak bilatu.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Herritarren artean kotxe elektrikoari buruzko informazio praktikoa zabaltzeko (dauden dirulaguntzak, karga puntuak non dauden, ohiko galderak.....					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta IDAZKARITZA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Bai
Lehentasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)		Erabilitako euskarrien baitan	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	3.1.10	Ekintza	Auto elektrikoak kargatzeko guneak zehaztu eta planifikatu.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Udala guneak non jarri aztertzen ari da, gune berrien kokapena planifikatzeko.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin.	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

Kodea	3.1.11	Ekintza	Udaletik “Ehunzango” ekimena berreskuratzeko ahaleginak egin.			
Helburu Estrategikoa	3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Mugikortasun planean ikastetxeetara oinez edo bizikletaz joateko ekintzak txertatu eta gauzatu.					
Arduradun nagusia	KULTURA (Hezkuntza) eta UDALTZAINGOA					
Beste arduradunak	Ingurumen teknikaria					
Epea	Hasiera urtea	2026	Amaiera urtea	2028	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	Ertaina		Aurreikusitako kostua (€)		Udal baliabideekin	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak						
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	3.1.12	Ekintza	Oinezkoen guneen eta bizikleta-bideen segurtasuna bermatzeko ekintzak aurrera eraman.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALERRIA					
Deskribapena	Mugikortasun Planean oinezkoentzako bideak garatzeko fase ezberdinetako plangintza bat landu, lehentasuna herriguneari emanez.					
Arduradun nagusia	BULEGO TEKNIKOA eta UDALTZAINGOA					
Beste arduradunak	--					
Epea	Hasiera urtea	2027	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	Ez
Lehentasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Mugikortasun Planaren baitan	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Udalerria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		Bizikletaren erabilera sustatzearekin garraioaren kontsumoak % 1,5 murriztu daitezkeela estimatu da. Hau da, 1.847.162 kWh (2022ko garraioaren kontsumo datua erabilita)	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		Kasu horretan, 495 t CO₂e isurtzea saihestuko litzateke.	

3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA

3.2 PROGRAMA: MERKATARITZA

Kodea	3.2.1	Ekintza	Errekauek zerbitzua martxan jarri, elikagaien etxez etxeko banaketa jasangarria bultzatzeko.			
Helburu Estrategikoa	3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA					
Programa	MERKATARITZA					
Deskribapena	2025ean martxan jarriko da. Proiektu honen bidez, bezeroek euren erosketak whatsapp tresnaren bitartez egiteko aukera izango dute, eta eskaerak etxean edo horretarako egokitutako takilletan jasotzeko aukera izango dute.					
Arduradun nagusia	KULTURA					
Beste arduradunak						
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	BAI
Lehenetasuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)			
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Merkataritza		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	



AZKOITIKO UDALA

Kodea	3.2.2	Ekintza	Eskualde mailako merkantzien etxez etxeko zerbitzurako puntu logistiko baten irekiera bultzatu, ondoren, bertatik modu jasangarrian garraiatzeko aukerak baloratuz.			
Helburu Estrategikoa	3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA					
Programa	MERKATARITZA					
Deskribapena	Iraurgi Berritzenekin elkarlanean aipatutako puntu logistikoa ezartzeko bideragarritasun azterketa egitea.					
Arduradun nagusia	KULTURA					
Beste arduradunak	ALKATETZA					
Epea	Hasiera urtea	2028	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	Txikia		Aurreikusitako kostua (€)		Bideragarritasun azterketa 10.000 €	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	--					
Oharrak	--					
Sektorea	Merkataritza		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA

3.3 PROGRAMA: INDUSTRIA

Kodea	3.3.1	Ekintza	Industria gunetara egin beharreko bidaien planak sustatu, Enpresa, Iraurgi Berritzen eta sindikatuekin batera.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	INDUSTRIA					
Deskribapena	2025ean eskualdeko energia mahaitik Eskuladeko mugikortasun diagnosia egin da. 2026ean mugikortasun plana idazteko asmoa dago eta bertan txertatuko dira garatu beharreko ekintzak.					
Arduradun nagusia	ALKATETZA					
Beste arduradunak	Ingurumen teknikaria eta zinegotzia					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2027	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehenetsuna	Altua		Aurreikusitako kostua (€)		Mugikortasun Planaren baitan	
GJH	3. Osasuna eta ongizatea.					
Erlazionatutako plana:	Azkoitiko Mugikortasun Plana					
Oharrak	--					
Sektorea	Industria		Aurrezpen energetikoa (kWh)		--	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		--	

3. ILDOA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKOA

3.4 PROGRAMA: UDALA



AZKOITIKO UDALA

Kodea	3.4.1	Ekintza	Udaleko langileen mugikortasun plana egin.			
Helburu Estrategikoa	3 HE: MUGIKORTASUN JASANGARRIA BULTZATZEA, GARRAIO PUBLIKOA ETA MOTORRIK GABEKO MUGIKORTASUN-MODUAK ERABILTZEAN OINARRITUA					
Programa	UDALA					
Deskribapena	Langileen joan-etorriei buruzko diagnostikoa gauzatu eta ekintza-plana diseinatu (ibilbide berdintsuetan autoa partekatzeko, etab.).					
